**MOTZAK** 135 DENDARIK SINATU DUTE GUREAN BAI MERKATARITZAKO HITZARMEN ZEHATZA
**GEHIGARRIA** TXIKIBARREN · **KIROLA** BEHOBIA-DONOSTIAKO HERRITARREN SAILKAPENA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko azaroaren 14a/XI. urtea/465. zkia



# Nagusilan, nagusiak laguntzen dituen elkartea

"NOLAKO LAGUNA, HALAKO JARDUNA" (esaera zaharra)

**ANTT CONSULTORIA**
INMOE3ILIARIA
Antonio Arritlaga, 1 behea
Tel.: 943 74 80 92

**ERAIKUNTZ BERRIAK**

ALTZOLA

Aukera ezin hobea 20 millioitik aurrera

LEKU - EDER

* Azken Etxebizitzak

* Lokalak

BARTOLOME ETA FRANTZISKO DEUNA

* 2 logelako etxeak

**JILAKKtN tbikUKUAK**

**ETXEBIZITZAK**

Santa Ana: 3 logela, egongela, sukaldea, terraza eguskitsua. Sartzeko moduan. 169.000 €

Santa Ana: 3 logela, egongela, sukaldea, igogailua. Sartzeko moduan. 177.298,57 €

San Antolin: 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena kanpoaldera. 162.273,26 €

**GARAJEAK eta LOKALAK**

Erdialdean: Marraduna. 21.000 €
Marraduna. 24,5 m$^2$ 21.000 €
San Roke: Itxia. 15 m$^2$. 22.900 €
Marraduna. 25 m$^2$. 21.000 €
San Roke: Alokairuan. 54 € / hileko
Urasandi: Itxia. 27m$^2$. 33.055,67 €
Urasandi: Lokala. 90 m$^2$. 66.000€

Pri INEURTEURRENA
ANIVERSARIO
50 Iriondo

Zuekin ospatu Rahi dugu!





**Zatoz tarjetoiaren bila.**

Abenduaren 9an 18.000 (3.000.000 pzta.) zozketatuko ditugu **7 erosketa txarteletan**

1. saria 6.000 (1.000.000 pzta)
2. saria 3.000 (500.000 pzta)
3. saria 3.000 € (500.000 pzta)
4. saria 1.500 (250.000 pzta)
5. saria 1.500 € (250.000 pzta)
6. saria 1.500 € (250.000 pzta)
7. saria 1.500 € (250.000 pzta)

ZATOZ TXARTELAREN BILA ETA HORRELAKO EGONGELA *edo* SOFA BAT EROSIZ GASTA DEZAKEZU TXARTELAREN DIRU KOPURUA!

Santa Ana 4 eta 6
Tel. 943 74 12 34

## 40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA



## 35 Ohitura zaharrak

*Aurreak erakusten du atzeak zelan dantzatu* dio esaera zaharrak. Eta guk ere errespetuz eta begirunez erreparatzen diegu gure aurrekoei. Gure aurrekoak izan zirelako gara gu, beraiekin dugun zorra da. Horregatik, eta ahal dugun neurrian, gure aurrekoen ohitura batzuk gordetzen saiatu gara. Izan ere, gure begiak etorkizunera begira dauden arren, lehengo ohiturak zaindu eta bultzatu nahi ditugu.

*Olentzero:* Horra, horra, gure Olentzero! Pipa hortzetan duela urtero etortzen da gure ikazkina. Gurdira igo eta gustura ibiltzen da kaleetan zehar, txiki eta handien pozerako. Gabon eguna kantu kantari eta irribarre batekin hasteko arrazoi bat da Olentzero. Eta gu portatzen garen bitartean, Olentzero ere portatuko da.

*Sargoateko erromeria:* Hiru-Kurutzetako magalean, urtero izaten dugu zita erromeriarekin uztailaren 25ean, Santiago egunez, hain zuzen ere. Ezin dugu lehen izaten zenarekin konparatu, baina joaten direnak gustura egoten dira. Meza, bertsolariak, trikitilariak eta barruak gozatzeko jana eta edana, horra Sargoateko erromeriari botatzen dizkiogun osagaiak.

*Santa Ageda eskea:* Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, hamaika urte beteko dira ohitura zahar honi hautsak kendu genizkionetik. Gure herrian galduta zegoen Agedaren omenez baserrietan kopla kantari eskean jarduteko ohitura, baina berehala konturatu ginen baserritarrek benetan estimatzen duten ohitura dela. Akorduan dutela Santa Ageda koruak baserriko atean kopla kantari jarduten zueneko sasoia. Baserritarrek nahi duten bitartean huts egin ezin dugun zita da Santa Ageda bezperakoa.

*Imanol Larratiaga*



## Aukera paregabea

25 urte pasatu dira Euskal Herriak ezetz biribila eman zion Espainiako konstituzioaren erreferenduma egin zenetik. 23 urte Autonomi Estatutuaren onarpen murritzatik. Gaur egun Hego Euskal Herriko indar politiko, sindikal eta eragile aunitzek marko politiko berri baten aldeko apustua egiten du. Ezker Abertzaleak izerdi, odol eta sufrimendu asko ordaindu behar izan du baina, inor gutxik sinisten bazuen ere, fase berri batean kokatuta dago Euskal Herria. Autonomiaren garaia bukatu eta marko berriaren eztabaida zabalik dago. Baina eztabaida hori koordenada egokietan finkatzea komeni da, lehengo akatsak berriro errepikatu ez daitezen. Euskal Herria bakarra da, zazpi probintziaz osatuta, eta denoi dagokigu, euskaldun guztioi, gure herriaren geroaz erabakitzea. Zutabe minimo hauetatik abiatu behar dugu edozein prozesu abiatzeko. Indarrak batzeko ordua dela uste dut, zutabe hoiek komunean ditugunon artean batu eta elkartzeko. Ibarretxek Lurraldetasuna albo batera lagatzen du, proposatzen duen kontsultan ea Espainian eta beste Estatutu batekin jarraitu nahi dugun besterik ez digu galdetu nahi.

Finean ez du gatazkaren konponketa ekarriko euskaldunon eskubideak ez direlako bermatzen Plan horretan. Zergatik ukatu behar diegu nafarrei, zuberotarrei, lapurtarrei gure herriaren geroaz egin daitekeen kontsulta baten parte hartzeko eskubidea? Zergatik herri kontsulta Estatutuaren inguruan dugun iritziaz egin eta ez euskaldunok gure herriarentzako nahi dugunaz?

Edozein kasutan une historiko berri bat zabaltzen da gure begien aurrean. Aprobetxa dezagun aukera hau nazio proiektuan aurrerapauso nabariak emateko. Hala bedi!

Pello Mendizabal


Kexak .................................5
motz motz ...............
gehigarria .................
kiRolAk .....................
aGenda..........................................24


Jeki

# Urruzunoren
## begi ezkutua



### Mundu arrosa

Goizeko zortzirak ziren Bartzelonan. Donostiara ekarriko ninduen autobusean nengoen euriak utzitako putzuci begira mutiko hura nire ondoan eseri zitzaidanean. "Bon dia!" Egunon? Euria ari zuen eta gainera 7 orduko bidaia luzea geratzen zitzaidan oraindik. Bon dia zuretzat majo! Diagonalean geunden tipoak, urduri, bere poltsikotik giltza batzuk atera zituencan, "merda!" esan zuen amorruz. Bisitan etorri omen zen eta lagunaren etxeko giltzak zituen poltsikoan. Korrika joan zen gidariarengana autobusa geratzeko eskatuz, bidaiari guztien harridurarako. Autobusak ateak zabaldu zituen. Nire atzeko emakumeak leihotik begiratu zuen: "ziur nago neskaleguna hemen utzi duela eta autobusa hartzeaz damutu dela". Aurrean neukan amonatxoak ere egin zuen bere komentarioa: "enee!! Ze pena horrelako mutiko erromantikorik ez ezagutu izana nire garaian!!". Irribarre egin nuen eta hankak libre zegoen eserlekuan jarri nituen, atzeko emakumea eta amonatxoa beraien mundu arrosan utziz.

Maite Uriarte

## BARRENEKO ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

1. Euskutitz guztiek identifikatuta egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia, derrigorrezkoak dira.

2. Eskutitzak izen-abizenekin argitaratuko dira. Egilca talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da. Ez dira "kuadrila bat", "gazte bat" edo "irakasle bat" bezalako formulak onartuko. Ezizenarekin ere ezingo dira gutunak sinatu. Alabaina, onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak.

3. Eskutitzaren LUZERAri dagokionean, 25 lerro artekoek izango dute lehentasuna. Hortik gorakorik balego (35 lerrotik gorakorik ez da onartuko) lekua dagoenean bakarrik argitaratuko dugu.

4. Eskutitzak erredakziora iristen diren ordenean argitaratuko dira. Halere, gutunetako gaien gaurkotasunaren mesedetan, ordena aldatzeko aukera izango da. Lekurik ez dagoen kasuetan, gaurkotasunak lehentasuna izango du.

5. BARRENeko gutunetan ez dira onartuko:

. Biraoak

. Gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak

. Pertsona eta erakundeei zuzendutako mehatxuak

6. Eskutitzetan ager daitezkeen akatsak zuzendu egingo ditugu (ortografikoak, gramatikalak eta abar). Halaber, izenbururik gabe datozen eskutitzei geuk ipiniko diegu.

*OHARRA: Arautegi honetan jasota ez dagoen kasuren bat izanez gero, BARRENeko zuzendaritzak izango du erabakia hartzeko ardura.*

hartzen IRITZIA etaESKU

RRen ASTEKARIA
Ba

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
r943744112
Publizitatea:
r943743704
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbideinformatikoa:
modwtopaguneazombamen
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi: ZuzErwArun Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz. Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Orruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRINATEGIA Gertu Koop, E. TIRADA 1,175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038192 ISSN 1139-1855

Efe
ELGOIBARK0 IZARRA
KUITIL ELEARTEA

*Elgoibarko Uclaiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Ahlundiak diruz Imundutako aldizkaria.*

kutxa
zuri esker

1DANOBAT
MALWINPS HESPANIIENTA

414G0111
GRURO DANORAT

gyraktra

# Kexak

## KEXAK

• Joan zen asteko kexa bati erantzunez, henitar batek ondorengoa azaldu digu: "Egia da Pedro Muguruza Etorbidean kotxeak azkar ibiltzen direla, eta arriskutsua dela, baina oinezko askok ez du espaloia erabiltzen, eta errepidetik pasiatzen dute. Bide hori oso estua da, eta kotxeak poliki ibili behar dira, baina oinezkoek espaloitik ibili behar dutc".





• Artetxeko bizilagun batek esan digunez, Iñigez de Karkizano eta Gabriel Krutzelaegi kaleak elkartzen diren lekuan, kotxeak aurrera jarrai ez dezaten zerbait jarri beharko lukete: "Zona hori oinezkoentzako lekua da, eta kotxeak bertara ez sartzeko zerbait jarri beharko lukete, larrialdietarako eta zerbitzuetarako bakarrik irckitzeko".

## GALDERAK

• Herriko Antzokian jan al daiteke? Gazte koadrila batek esan digunez, beraiei sekula ez diete ezer jaten uzten, zarata ateratzen dutela, eta zerbait jaten ikusiz gero, kalera bidaliko dituztela esaten die Herriko Antzokiko arduradunak. Hala ere, jende nagusiagoa jaten eta edaten ikusi izan dute, eta haiei ez diete arduradunek ezer ere esaten. Kultura Sailera deitu dugu, eta esan digutenez, jatea debekatuta dago denentzat. Batzuk ez omen dute hori errespetatzen, baina berez, Herriko Antzokian ezin da ezer jan.



## Barrak, Birrak eta Barreak



# Nagusilan

## 3 urtez nagusiekin

*Duela hiru urte sortu zen Elgoibarko Nagusilan Elkartea. Izenak berak aditzera ematen duen moduan, nagusiekin lan egiten duen elkartea da, hau da, gaixo dauden nagusiei laguntza ematea da bere helburua. Nagusilan Elkartea 22 lagunek osatzen dute, eta gehienak jubilatu eta etxekoandreak dira. Antonio Berasaluze elgoibartarra da Nagusilan Elkarteko partaideetako bat, eta berak azaldu digu elkartearen antolamendua. Gaixoen ikuspuntua ezagutzeko, bestalde, Maritxu Etxeberriarekin hitz egin dugu.*

**NAGUSILAN ELK ARTEAREN SORRERA**

Bilerak egiten aspalditik hasi baziren ere, duela hiru urte inguru sortu zen Nagusilan. Antonio Berasaluzek kontatu digu nolakoa izan zen elkartean sorrera: "Elgoibarko Nagusilani bultzada, duela urte bete inguru hil zen Adon Ansolak eman zion. Donostian bazegoen honelako beste elkarte bat, eta informazioa lortzeko Juan Mari Garitanorekin bat egin zuen Adon Ansolak. Juan Mari Garitano elgoibartarra da jaiotzez, baina garai hartan Donostian bizi zenez, gure elkartea sortzeko pertsona oso egokia izan zen".

Poliki-poliki, jendea biltzen hasi ziren. Jubilatuak eta etxekoandreak izan ziren geihenbat, Elgoibarko Nagusilan Elkartearen sortzaileak: "Juan Mari Garitanok Gipuzkoako beste hainbat herrietako esperientziak kontatu zizkigun, eta haren ildotik hasi ginen bilerak egiten. 8 lagun inguru izan ginen hasieran taldea osatu genuenak, eta dagoeneko, hiru urte pasatu dira".

**GERO ETA BOLUNTARIO GEHIAGO**

8 lagunek osatzen zuten hasieran Nagusilan Elkartea, eta gaur egun 22 laguneko taldea daukate. Denbora librea daukaten gizon eta emakumeek osatzen dute taldea. Nagusilan Elkarteko langileek lan boluntarioa egiten dute: "Inor ez dago derrigortuta Nagusilanen,



**"Gaixo edo nagusi bati astean bi orduko dedikazioa ematea da boluntarioen eginbeharra"**

Antonio Berasaluze

lan boluntarioa egiten dugu, eta ez dugu dirurik kobratzen. Bakoitzak ahal duen heinean kolaboratzen du, bere konpromisoak alde batera uzteko beharrik gabe".

Nagusilan Elkarteko boluntario bakoitzak astean bi orduko dedikazioa dauka: "Gaixo edo nagusi bati astean bi orduko dedikazioa ematea da boluntarioen eginbeharra. San Lazaro egoitzara joan eta beraiekin berriketaldi bat eduki, edo etxeko lanak egin, edo pasiatzera ateratzea, esate baterako". Honetaz gain, noizean behin irteera berezi batzuk ere egiten dituzte: "San Lazaro Egoitzak antolatzen ditu irteera batzuk, eta uda aldean Gurutze Gorrikoekin joaten gara arratsalde pasa San Lorentzo, San Pedro edo San Migel aldera".

Ezin dituzte denak batera atera, eta txandaka ateratzen dira. Antoniok esan digunez, badira batzuk irten nahi ez dutenak, baina behin irtendakoan gustatu egiten omen zaie: "Txandaka ateratzen ditugu, eta gehienak desiatzen egoten dira".

Antonio Berasaluzek azaldu digunez, ez dute lan honetatik bizi diren jendeari konpetentziarik egiterik nahi: "Jende asko bizi da nagusiak zaintzetik, eta guk ez dugu jende horri konpetentziarik egiterik nahi. Beharra daukaten nagusiak soilik zaintzen ditugu, eta Ongizate Sailak jartzen dizkigun baldintzak betetzen ditugu".

Nagusilan Elkartea Ermua, Eibar, Azpeitia, eta Deban ere badago. Goierri aldeko herri gehienetan ere martxan daude honelako elkarteak, baina elkartearen egoitza nagusia Donostian dago. Antonio Berasaluzek azaldu digunez, bi hilabetean behin elkartzen dira herri guztietako partaideak Donostian: "Herri guztietan antzerako programak dauzkagu, baina esperientziak desberdinak dira, eta

# lanean



"Ahal dugun heinean proiektu honekin aurrera jarraituko dugu"

Antonio Berasaluze

gainontzekoen kontuak entzutea oso interesgarria izaten da".

Udalak lagatako lokal batean biltzen dira Plaza Txikian. Hiru urte pasatu dira dagoeneko Nagusilan sortu zenetik, eta Antonio Berasaluzek esan digunez, ahal duten heinean Elgoibarko nagusiak zaintzen jarraituko dute: "ez dakit beraiei zer nolako satisfakzioa ematen diegun, baina guk sekulakoa hartzen dugu, eta hor lortzen dugu gure etekina".

## Maritxu Etxeberria

# "Asko gustatzen zait kalera ateratzea"



Maritxu Etxeberria elgoibartarrak 69 urte ditu, eta bost urte daramatza San Lazaro Egoitzan. Hankak ahulak ditu, eta gurpildun aulkia behar du alde batetik bestera joateko. Nagusilaneko boluntarioek ateratzen dute noizean behin pasiatzera, eta esan digunez, bere txanda iristeko desiatzen egoten da. Gaurkoan Antonio Berasaluzerekin batera topatu dugu kalean, eta bere esperientzia propioa kontatu digu.

**Zer moduz zaude San Lazaro Egoitzan?** Oso ondo. Ezin dut ibili, baina osasunez oso ondo nago. Gainera egoitzako erizainek oso ondo zaintzen gaituzte.

**Nagusilanekoekin pasiatzera irtetea gustatzen al zaizu?** Bai. Oso ondo pasatzen dugu. Ni kalera irteteko zain egoten naiz. Antonio Berasaluze aspalditik ezagutzen dut, eta nire txanda dela esaten didanean izugarri pozten naiz.

**Noiz atera zinen azkenengo aldiz kalera?** Duela hilabete inguru. Urriaren 7an. Errosario kaleko jaiak ziren, eta meza entzun ostean, Ama Birjinari Salbea abestera joan ginen. Ordutik aurrera eguraldi txarra egin du, hotz handia eta ez gara atera. Nahiago dut eguraldi ona egitea, pasiara txiki bat bada ere egiteko.

**Irteerak egitea gustuko al duzu?** Bai, ni denetara joaten naiz. San Lorentzora, Arratera, San Pedrora, Mintxetara, Nettora... ondo nagoen bitartean denetara joango naiz.

**Nolakoa izaten da zure bizitzako egun arrunt bat?** Oso goiz jaikitzen gara. Dutxatu, eta gero gosaria ematen digute. Eguerdiko 12:30etan bazkaltzen dugu. Arratsaldean batzuetan kartetan jolasten dugu, eta 20:30etan afaria ematen digute. Oso goiz erretiratzen gara ohera, baina logelan telebista daukagu, eta gauean ikusten dugu apur bat, edo irratia entzuten hartzen dugu lo.

**Etxekoek bisitatzen al zaituzte?** Ahal dutenean etortzen dira senideak. Gabonetan elkartuko naiz beraiekin. Gabon gauean anai zaharrenarekin elkartuko naiz, eta Gabon Zaharretan beste anaiaren etxera joango naiz. Ez zaizkit sekula Gabonak gustatu, baina familiakoekin elkartzeko gogoa badaukat.

# Lurrazpiko zabor kontenedoreak jarriko ditu Udalak Arregitorren

## 108.413 euroko kostua izango du proiektu honek, eta kristala, papera, ontziak eta herriko hondakin solidoak jasoko dira

Elgoibarko Udalak Arregitorre 2 guneko etxebizitza berriak egiteko proiektua aprobetxatuz, Ermuaranbide kalean lurrazpiko zabor kontenedoreak jartzeko proiektua aterako du lehiaketara. Proiektu honek 108.413 euroko kostua izango du, eta enpresa interesatuek azaroaren bukaerara arte aurkeztu ahal izango dituzte beraien proposamenak.



*Zortzi zabor kontenedore jarriko dituzte Ermuaranbide kalean.*

**8 zabor kontenedore**

Guztira lurrazpiko 8 zabor kontenedore jarriko dira, kristala, papera, ontziak eta herriko hondakinak jasotzeko. Zabor mota bakoitza jasotzeko bi kontenedore jarriko dira, bakoitzak 4.000 litroko edukiera izango du.

Zabor kontenedore hauek lur azpian jarriko dira, eta sistema hidrauliko baten bidez, zaborra jasotzera datozen momentuan bakarrik aterako dira kanpora. Kristalaren kasuan, 3,5 m3 edukiera daukan zabor kontenedore bat erabiliko dute lur azpitik ateratzeko.

Lurrazpiko zabor kontenedoreak gomazko tapoi bidez itxita egongo dira, urik sartu ez dadin, eta usain txarrik ez dadin kanpora atera. Lur gainean, buzoi baten itxurako elementu bat egongo da, eta herritarrek bertatik botako dute beraien zabor poltsa. Buzoi horretako tapa ixten den momentu berean, zabor poltsa kontenedoreraino eroriko da. Kontenedore hauek itxita egongo dira, eta zaborra botatzeko momentuan bakarrik zabalduko dira.

## Enpresen Kudeaketarako Ikastaroak antolatu ditu Debegesak

Debabarrenako eskualdeko enpresetako zuzendariei, gerenteei eta arduradunei zuzenduriko 30 ikastaro inguru antolatu ditu Debegesak. Ikastaroak abenduan hasiko dira, eta 2004ko ekainera arte luzatuko dira. Helburua, eskualdeko enpresen kudeaketa profesionalizatzea izango da, eta enpresako alor desberdinak jorratuko dira: finantziazioa, nazioarteko merkataritza, giza baliabideak, kalitatea, erosketak, alor fiskala... Interesatuek naiara@debegesa.com helbidera idatzi edo 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete.

## Gaixoen aldeko ospakizuna izan zen azaroaren 9an



Urtero bezala, azaroko bigarren igandean, aurtengoan hilaren 9an, gaixoen aldeko ospakizuna izan zen. Gipuzkoako beste herri batzuekin elkarlanean urtero ospatzen dute egun hau. Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Zarautz, Zumaia eta Elgoibarko 110 gaixo inguru bildu ziren. Eguerdiko 12:30ean meza entzun zuten Parrokian, eta gero, Sigma jatetxera joan ziren bazkaltzera.

## 135 dendarik konpromiso zehatzak hartu dituzte merkataritzan euskara indarberritzeko



Gurean Bai-Merkataritza programaren hitzarmen orokorra joan zen urtarrilean sinatu bazen ere, dagoeneko Elgoibarko 135 dendarik euren dendan euskararen egoera hobetzeko hitzarmen zehatzak sinatu dituzte. Hitzarmen bakoitza norberaren behar, interes eta aukeren neurrira egokitutakoa da, eta 2005 urteko abendura arteko epea izango dute dendariek hitzarmen hori betetzeko.

Gabonen gertutasuna aprobetxatuz besterik ere egin dute Gurean Bai-Merkataritza planeko arduradunek. Bereziki euskaraz ez dakiten dendariek eta euskaldun alfabetatugabeek izan ohi dituzten zailtasunak arintzeko, uda eta Gabonetako hiztegi eta esapideez osatutako bildumatxoa atera dute. Eskuorri formatuan dagoen hiztegitxo hori, bi sasoi horietako eta merkealdietako zalantzak argitzeko baliagarri izango zaio dendariari.

Bukatzeko, plan beraren barruan, euskararen ezagutzan eragiteko merkatarientzako euskara ikastaro berezia jarri dute martxan aurten ere, eta 6 lagun dabiltza urrian hasitako ikastaro berezi horretan.

## "Magoston jaia ospatuko da igandean, hilaren 16an



Urtero bezala, Elgoibarko Galiza Kultur Etxeak "Magosto" jaia antolatu du. Datorren igandean, hilaren 16an ospatuko da, Elkarteak Urasandin daukan egoitzan. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da ospakizuna, eta gaueko 21:00ak arte, ardoa eta gaztainak dohainik dastatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek.

Bestalde, Galiza Kultur Etxeak zuzendaritza talde berria aurkeztu du. Aurrerantzean, Juan Novoa Gonzalez izango da elkarteko lehendakaria, Jose Francisco Santaren lehendakari ordea, Venerando Cid idazkaria, Vicente Ribao diruzaina, Jaime Ovidio Campello eta Jose Bernardino Gonzalez harreman publikoen arduradunak, Jose Antonio Perez liburutegiko arduraduna, eta azkenik, Carlos Rodriguez, Ceferino Arnaiz eta Edurado Barandela bozeramaileak.

## 2.000 argentinarrek erakutsi zioten babesa Josu Larizi



2.000 lagunetik gora elkartu ziren hilaren 7an Buenos Airesen, bertan preso dagoen Josu Lariz elgoibartarrari elkartasuna adierazi eta Espainiara estraditatu ez dezaten eskatzeko. Larizek urtebete darama preso Argentinan, Baltasar Garzon epaileak bere estradizioa eskatu zuenetik. Giza Eskubideen aldeko elkarte, sindikatu eta ezkerreko erakundeetako ordezkariak bildu ziren, Josu Larizen mezu bat irakurri zuten, eta Mareela Bordenave Argentinako Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko presidenteak, Josu Lariz askatzeko bere esku dagoen guztia egingo duela adierazi zuen.

## Oebabarrenak hilabete honetan jarriko du martxan laneko arriskuen prebentzioko formazio plana

Hilaren 22an hasiko dira laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko formazio planak.

Lehenik eta behin, laneko arrikuen prebentzioko goi mailako kurtsoa eskainiko da. Kurtso honek, higienea, ergonomia eta psiko-soziologia espezialitateak bilduko ditu. Laneko arriskuen prebentzioan lan egiten dutenek dituzten arazoei erantzunak emateko, laneko arriskuen prebentzioko auditoria kurtsoa eskainiko da.

Azkenik, Debegesak, eraikuntza lanetan segurtasun koordinatzaile izateko kurtsoa emango du, arkitekto eta ingeniariei zuzendurikoa. Kurtso honen helburua, eraikuntza lanetan segurtasun eta osasun sailetan koordinatzaileak izateko teknikoak sortzea da. Bestalde, segurtasun eta osasun ataletan ikasketa gehiago burutzeko prestatuko ditu partehartzaileak.

Interesatuek 943 72 93 80 telefonoan lortu dezakete informazio gehiago.

## Jubilatuen Etxeko ile apaindegia ustiatzeko lehiaketa atera du Gizarte Ongizate Batzordeak

Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeak Jubilatuen Etxeko ile apaindegia ustiatzeko lehiaketa deialdia egin du. Lehiaketa horretarako baldintzak Udaleko Gizarte Batzordean jaso daitezke, eta eskaintzak aurkezteko epea 2003ko azaroaren 18an bukatuko da.

# 118 lagun ari dira euskara ikasten Elgolbarka

*Elgoibarko euskaltegletan 118 ikasle matrikulatu dira aurten euskara ikasteko. Azken urteetako beheranzko joerak bere horretan jarraitu arren, azken 3 urteotan matrikulatuen kopurua antzerakoa izan da. laz 120 ikasle (5 talderik gabe) matrikulatu ziren eta 134 duela 2 urte. Orain dela 3 urteko datuetara atzera begiratua eginez gero, berriz, 158 euskara ikasle izan zituzten herriko euskaltegiek. Datu hauek eta beste zenbait gai hizpide izan ditugu Izaskun Belategi, AEK Euskaltegiko zuzendariarekin, eta Susana Gurrutxaga, Udal Euskaltegiko zuzendariarekin.*

## Susana Gurrutxaga
## Udal Euskaltegiko zuzendaria



**Zuen sektorea krisian dagoela entzun eta entzun dihardugu. Egia al da?**
Egia da taldeak osatzea gero eta gehiago kostatzen zaigula, ikasleak cuskaldunduta ateratzen dira (ez erabileran) eta nahiz eta joera beheranzkoa izan, mantentzea lortu dugu.

**Zergatik ez da jendea euskara ikastera animatzen?**
Ahalegin handia egin behar du euskara ikasi nahi duenak, eta bestelako ikastaro moten eskaintza hain handia izanik, jendeak erabaki bat hartu beharra dauka. Honez gain moduloak eskaintzeko orduan aldaketa handirik ez badugu, gero eta zailagoa da.

**Zein da euskara ikaslearen egungo profila?**
Gehienak etxeko andreak, lanpostu bat lortze aldera hizkuntz eskakizuna lortu nahi dutenak, etorkinak eta gero eta jende gazte gutxiago.

**Zer aldatu beharko litzateke jende euskara ikastera animatzeko?**
Alde batetik, erabilera bultzatzeko planen bat prestatu beharko litzateke; bestetik, moduluen malgutasuna eskaini, hau da, egunero etorri ezin diren ikasleei beste aukera batzuk eman.

**Zelakoa ikusten duzue euskaltegien etorkizuna epe motzera? Eta euskararena?**
Euskaltegiok oraindik lan dezente daukagu egiteko. Gizartea etengabe ari da aldatzen eta une honetan badirudi ez zaiola behar besteko garrantzia ematen euskara ikasteari, dena dela, gure ustetan jende asko dago oraindik euskaldundu eta alfabetatu beharrean, beraz, etorkizuna ilun samar ikusi arren, gure lana cz da oraindik bukatu, ezta gutxiagorik ere!

**Ba al dago bi euskaltegirentzat etorkizunik Elgoibarren?**
Aukera edukitzea ona da, ikasleak aukera dezakeelako nora joan nahi duen baina bestetik, taldeak osatzeko arazoak izaten ditugu.

## MATRIKULAZIO DATUAK

| | 00-01 IKASTURTEA | 01-02 MASTURTEA | 02-03 IKASTURTEA | 03-04 IKASTURTEA |
|---|---|---|---|---|
| BEHE MAILA | 89 31 44 | 83 | 53 | 45 |
| ERLIIKO MAILA | 10 11 21 | 22 | 26 | 40 |
| GOI MAILA | 59 21 25 | 49 | 36 | 33 |
| GUZTIRA | 158 | 134 | 115 | 118 |
| TALDERIK GABE | "11 | 11 | 5 | |

***Datu** hauek ikasturte hasierakoak dira*

## Izaskun Belategi
AEK Euskaltegiko zuzendaria



**Zuen sektorea krisian dagoela entzun eta entzun dihardugu. Egia al da?**
Bai, egia da, baina faktore asko izan dira egoera honetara heltzen lagundu dutenak.

**Zergatik ez da jendea euskara ikastera animatzen?**
Arrazoi asko daude. Hasiera batean AEK izan zen erasoak jaso zituen lehena. Harrezkero, gure hizkuntza desprestigiatzeko egiten diren ahaleginak egunerokoak dira eta horrek ez du inondik inora ere, jendea motibatzen laguntzen. Bestalde, bizimodu arrunta egiteko ere, ordutegi estuak ditugu eta matrikula garestiak. Beraz, euskara ikasteak suposatzen duen ordu eta diru inbertsioak ez du jendea animatzen.

**Zein da euskara ikaslearen egungo profila?**
Gaur egun, gazte gehienak EGA prestatzera etortzen dira. Euskara ikastera datozenak berriz, 25 urtetik gorako guraso gazteak eta inguru euskalduna bizi duten langileak dira gehienbat.

**Zer aldatu beharko litzateke jendea euskara ikastera animatzeko?**
Jendeak ez du beharrik ikusten eta beharra sortu egin behar da. Lehenengo, euskararen lurralde osoan ondo definitutako hizkuntza politika berri bat sortu behar da; era berean, ikasteko erraztasunak jarri: ratioak, modulazioak... Ikasle guztiek aukera eta dirulaguntza berberak izan behar dituzte instituzioen aldetik lurralde osoan.

**Zelakoa ikusten duzue euskaltegien etorkizuna epe motzera? Eta euskararena?**
Laguntzarik ezean ondo ez. Erronka handia dugu. Euskalgintzak arlo asko ikutzen ditu eta batuta egon behar du euskara aurrera ateratzeko. Orain arte erantzuten jakin du, bestela euskara ez litzateke egongo gaur egun dagoen egoeran. Horregatik; hemendik aurrera ere, denok batera baina bakoitzak bere arlotik, euskara ez dakitenak ikastera eta euskaldun zaharrek elkarlanean erabilera suspertzen laguntzeko euskaldun berriei bultzada emateko... alfabetatzeko konpromisoa hartu behar dute.

**Ba al dago bi euskaltegirentzat etorkizunik Elgoibarren?**
Orain dela 20 urte gu ginen euskaltegi bakarra. Bigarrena sortu behar zutela jakin genuenean gure iritzia argi eta garbi azaldu genuen. Beraz, dagokionari galdetu beharko diozue une hartan egin zuten diagnosiak zer erakutsi zuen. Gure euskaltegiak orain arte iraun badu, izan dugun ikaslego fidelari esker izan da eta aurrerantzean ere, horrela jarraitzea espero dugu.






### Urtebete pasa da Prestige petroliontziaren hondamendia gertatu zenetik

# NOLA IKUSTEN DUZU EGOERA URTEBETE BERANDUAGO?



## SALUD BLANCO

**69 urte, etxekoandrea**

Ministroak esaten duenez, egoera hobea da, baina kaltetuen hitzetan, egoera ez omen da sekula berdina izango. Dirudienez, itsasontzia uretatik atera arte, kalteak jasango ditugu.

## PAKI ROMERO

**37 urte, garbitzailea**

Urtebete eta gero, ez da ezer konpondu. Asko hitz egin dute, baina egin gutxi. Uda honetan denok zikindu gara hondartzan, eta txapapotea luzarorako daukagu.





## JABIER ERRASTI

**44 urte, irakaslea**

Gobernuak ezer pasatu ez balitz bezala jokatzen du, baina gauza asko pasatu dira. Biologoek esan dutenez, luzarora minbiziaren arrazoietako bat izan daiteke txapapotea. Ezin dira oraindik ondorioak atera.

## JAVIER RODRIGO

**32 urte, espezialista**

Telebistan esan dutenez, egoera hobea, hala ere, hobea izan zitekeen. Honelako hondamendiak aurreikustea da orain garrantzitsuena, berriz gertatu ez dadin.





## ANDONI ORTEGA

**34 urte, maisu industriala**

Egoera hobetu egin dela esan daiteke. Berriz gertatuko balitz, ez dakit zer egingo lukeen Gobernuak. Planteamendu garrantzitsu bat cgin behar da, berriz berdina gertatu ez dadin.

## ALICIA MERINO

**27 urte, delineantea**

Luzaroan edukiko dugu txapapotea gure hondartzetan. Gainera Frantziari, eta Ingalaterrari ere eragiten dio. Egoera honetara iritsi behar ez izateko gauzak hobeto egin zitezkeela uste dut.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tek 943 74 11 89

lik
Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 v 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



o H

oz

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 6 gehigarria

••••••••••1111111111111111,11$•••••••••••1111•411•Ste

**_Alex Sardui nor den galdetuko banizu agian harridura aurpegia jarriko zenuke, ezta? Baina Exkixu edo Gatibu esanda? Hain zuzen, Gatibu taldearen abeslaria da gernikar hau. Etxe askotara sartu da bizkaiera beralei esker eta azken diskoaren arrakasta ikusita, ziur gaude bizkaiera denbora luzean entzungo dela irrati nahiz etxeetako musika aparalluetan._**

# Alex Sardui

## Gatibu musika toldeko abeslaria



**Abeslari oso ezaguna bihurtu zara, nola gertatu da hau guztia?**

Exkixurekin hasi nintzen, hura izan zen nire lehenengo taldea. Ondoren Gatibu, eta horrela iritsi naiz honaino. Esperientziak eta denbora tarte honetan ezagutu dudan jendeak zeresan handia izan du bilakaera hontan.

**Noiz ohartu zinen kanturako trebetasuna zeneukala?**

Inolz ere ez! Orain ere ez dut uste trebea naizenik. Beti akatsak topatzen aritzen naiz.

**Orduan zergatik izan duzu horrenbesteko arrakasta?**

Bizkaieraz abesteak jendea erakarri duela uste dut. Bestetik, lortu dugun blokeak zeresana izan du Euskal Rock&Roll-ean. Zortea ere funtsezkoa izan da.

**OperaciPn Triunfori buruz zein iritzi duzu?**

Fan fenomenoa gehitu dute, musika konkretu bat sartu dute eta hau kaltegarria da musikarentzat.

**Eta zure fansak ez al dira forofismo horretan sartzen?**

Ez! Desberdina da norbait mirestea edo idolatratzea. Ni gazteagoa nintzenean "La Polla" edo Fermin Muguruzarekin emozionatzen nintzen, baina ez nintzen O.Tk sortu dituen fan horietako bat.

**Bizkaieraz zergatik'?**

Etxeko hizkuntza delako, eta batez ere, abandonatua egon delako kantu mailan.

**Zer sentitzen duzu taberna batera sartu eta zure kanta bat entzutean?**

Ohitu egin naiz! Lehen lotsatu egiten nintzen, baina orain bajuaren figura edo bateriaren erritmoa entzuten geratzen naiz.

Zuzenean kontzertua graba-tzekoak gara 27 eta 28an. Luzera begira, taldea sendotzea eta nolabaiteko nortasuna lortzea dira gure helburuak, urtebeteko arrakasta bakarrik bihutu ez dadin.

**Befinitu zure burua 3 hitzetan:**
Naboa, urduria eta arduratsua.
**Idolo bat?**
Euskadi.
**Momentu bat?**
Franco hil zenean.
**Nori oparituko zenioke loretxo hat?**
Nire neskari.
**Ikustezina bazina?**
Gaizki pasatuko nuke.
**Gran Hermanora aurkeztuko zinateke?**
Ezta pentsatu ere.
**Nola ikusten duzu zure burua BO urterekin?**
50 urterekin baina 10 urte gehiagorekin.
**Benbora geratzeko aukera bazenu?**
Gauza guztietarako geratuko nuke.
**Txlstuak, riorentzat?**
Besteen ideiak onartzen ez dituztenentzat.
**Txaloak?**
Euskadi euskaldun ikusi nahi dutenentzat.
**Ahesti bat?**
Rolling-en "Stand me up".
**Betegabeko amets bat?**
Futbolista izatea.
**Berriro jaloko hazina?**
Gehiago ikasiko nuke, baina bestela ez nuke ezer aldatuko.

**"Bizkaieraz abestea izan da Gatiburen arrakastaren arrazoia"**

# IKASLEARI AZTERKETA

## JONE ETXABE

**ESKOLAURREKO IRAKASLEA**



**1 Inoiz egin dizuten galdera zailena?**
Noiz ekarriko duzu ume txiki bat?

**Nola gogoratzen duzu zure ikasle garaia?**
Frankismo garaia zen eta erdaraz ia ez nekienez, ez zen batere erraza izan.

**3 Zer da ikasleei gehien errepikatzen diezuna?**
"Elkar ez jo", "hitz zatarrik ez esan", "arreta jarri".

**4 Zertan desberdintzen dira lehengo ikasleak eta gaur egungoak?**
Gaur egungoek irudirik gabe ezin dute arreta jarri.

**5 Nolakoa da ikasle on bat?**
Entzuten dakiena.

**6 Eta irakasle on bat?**
Irakatsi nahi duena, ondo azaltzeko gai dena.

**7 Zer eskaini dizute ikasleek?**
Esker ona, alaitasuna eta afektibitatea.

**8 Mila aldiz irakatsi arren, inoiz ikasi ez duzuna?**
Momentu zailetan lasai egon eta erabakiak behar bezala hartzen.

**9 Ikastola erretzen ari da, zein gauza material aterako zenuke aurrena?**
Hasierako urteetako artxiboak, etapa latzeneko oroimen gisa.

# NOLAKO ENBORRA... HALAKO EZPALA

## GALDERAK

1. Zer da zure alabaz/amaz gutxien gustatzen zaizuna?
2. Zeren kontra egingo zenuen manifestaldi bat?
3. Marrazki bizidun bat?
4. Famatu bat ezagutzeko aukera bazenu, zein?
5. Zenbat urte izatea gustatuko litzaizuke?
6. Arratsalde baterako plana?
7. Ikustezina bazina zer egingo zenuke?
8. 20 urte barru nola ikusten duzu zure burua?
9. Zeri diozu beldurra?



**AINHOA IDARRAGA**
**ama**

1 Prontoa
**2** Gerraren aurka
**3** Heidi
**4** Brad Pitt
**5** 20
6 Siesta on bat
1 Banku bat lapurtuko nuke
**8** Senarrarekin bakar-bakarrik
**8** Heriotzari



MIREN **LAHOZ**
**alaha**

Hasarrea 1
Txokolatea egunero edukitzearen alde **2**
Shin Chan **3**
Betizu taldeko Leire **4**
16 **5**
Zinera joatea **6**
Bihurrikeriaren bat egingo nuke, baina ez dizut esango zein, bestela... 1
Pelukera lanetan eta amatxokin bizitzen **8**
Harry Potter-en agertzen den gaueko hontzari **9**

# Txiki inkesl-a

## Zer da politika?

### 11 urte Julen Konde

Politikan partidu asko daude, estatua zeinek gobernatzen duen erabakitzen da eta legeak erabakitzen dira politikaren bidez.

iff

### 11 urte Belen Cordon



Pertsona batzuk eztabaidan ibiltzea gure estatua hobetzeko eta gu bertan ondo egoteko.

### 11 urte Amaia Lersundi



Politikan hauteskundeak egiten dira Lehendakari edo presidentea hautatzeko. Eta beti eztabaidan dabiltza denak.

### 11 urte Borja Diez



Politika Aznar eta Zapateroren arteko borroka da.

## Zer iruditzen zaizu Espainiako printzeak aukeratutako andregaia?

### Ane Irisarri 9 urte



Printzea oso jatorra da. Nire ustez printzesa oso ona da. Oso ederra da.

### Nora Santiago 9 urte



Ondo, bere arreba guztiak ezkonduta daudelako eta oso guapa delako bere andregaia. Zoriontsua izan dadila!

### Ariana Nogales 9 urte



Ondo, berari aproposa iruditzen bazaio, eta maite badu, ezkontzea!

### Urtzi Inlxausti 9 urte



Nik uste dut erregina ona izango dela. Oso guapa da, Asturias guztia ezagutzen du. Printzea ere ona da, eta telebistan oso guapo agertzen da.

# PariSiik ndorren auista 6at nal,z



Ane Arakistain - L.H. 3. maila - Herri Eskola

nizz~mipr

**Ipuina: JONE UNTXIA**

Bazen behin Jone deifzen zen unfxi, baf. *Elun* bafean parkeixo bafera joan zen efa besfe unfx1, baf Lkusi zuen. Jone un.fxiak parkean ze9oen belrafu zi,on bere ***aeak*** *9arbi*,-garlak zeudelako efa Jonerenak, berr1,z, ziki,n-vjdnak. Bapafean lokafz pufzu bafean fxori,fxo baf i,kusi, zufen i,fofzen efa parkean ze9oen unfx1,ak esan zuen:

ez dui fxoria salafu besfela nere deak zikinduko difuf. Jon.ek penfsatu zuen bere baifan fxori,a salbafzea:

-Banoa fxor1,fxoa salafzerai Efa Jone lokafz pufzura korrdea joan, salfo e914 efa fxori,fxoa salba.fu zuen. Parkean ze9oen unfx1,ak esan zuen.:

-Buaj! le nazka! orcitian berfan zerufi,k ar9i, dissarafsu baf azaklu zen. efa Jone unfx1,aren ideak *9arb1,* efa dizcli,rafsuak bi,hurfu zi,ren efa parkean ze9oen unfx1,aren. zjei,nak *9eraftt* ziren.

## lehiakei-a lehiakeha

Zer dago faltan, soberan **edo aldatuta?**



Erantzunak BARRENera ekarri edo posta elektronikoz bidali: barren@topagunea.com





Aurreko lehiaketako irabazlea: **Itxaso Rodriguez**

**Erantzuna: ......................................**

..................................................................

**Izen abizenak: ................................**

**Telefonoa: .......................................**

SARIA Liburu boi

("HARRY POTTER eta sekretuen ganbera")




14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 14 | Fernandez | Fernandez |
| 15 | Yudego | Yudego |
| 16 | Yudego | Yudego |
| 17 | Zabaleta | Zabaleta |
| 18 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 19 | Ibañez | Ibañez |
| 20 | Bidasolo | Bidasolo |
| 21 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |

**FARMAZIAK**

**ESCALA, Rekaide,** 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
16 igandea Fotero

## Eusko

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donostia AmARA 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

## Eusko Tren

AD1OBIS -11(

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jakgunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## ELGOIBAR

SIGMA — ARRIAGA

| SIGMA | ARRIAGA | ARRIAGA | SIGMA |
|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**
Anbulatorioa ............................ 943 03 26 10
Planning-a ................................ 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak .................. 943 74 03 85
D YA (anbulantzia) ..................... 943 46 46 22
Gurutze Gorria ........................... 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea ..................... 943 03 28 00
Odol Emaileak ............................ 943 74 39 36

**GARRAIOAK**
Eusko Trenbideak. ........................ 943 74 04 42
PESA (Eibar) .............................. 902 10 12 10
Taxi geltokia .............................. 943 74 08 98

**UDALA**
Euskara Zerbitzua ........................ 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua .................... 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ........................ 943 74 21 58
Mendaroko Udala ......................... 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ....................... 943 74 10 08
Udaletxea ................................... 943 74 10 50
Udaltzaingoa ............................... 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**
Elgoibarko Izarra .......................... 943 74 16 26
Kiroldegia .................................. 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ........................ 943 74 30 88
Liburutegia ................................. 943 74 35 25
Musika Eskola .............................. 943 74 21 45
Mintxeta ..................................... 943 74 43 15
Parrokia ..................................... 943 74 08 42
Postetxea ................................... 943 74 15 47
Gaztetxea ................................... 943 74 35 72
Gazte Informazioa ........................ 943 74 14 61

**ADINEKOEN ETXEAK**
San Lazaro Egoitza ....................... 943 74 02 96
Zaharren Biltokia ......................... 943 74 05 26
Eguneko Zentroa .......................... 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**
Haur Eskola ................................. 943 74 21 41
HHI (EPA) ................................... 943 74 08 80
Herri Eskola ................................ 943 74 08 79
I.M.H. ........................................ 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre ................................... 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ........................... 943 74 80 19
Ikastola ...................................... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ............................ 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**
BARREN ...................................... 943 74 41 12
El Diario Vasco ............................ 943 74 40 73
El Correo Español ........................ 943 74 10 82
Zazpiki irratia ............................. 943 74 34 74
Egunkaria ................................... 943 30 02 28
Gara .......................................... 943 31 69 99

## FRKfill A KIRfill A

### EMAITZAK

**3. Jardunaldia**

FUTBOLA, Mintxetan

■ **Infantil mutilak** ■
Ikastola B 0 - Pilar B **4**
Ikastola A 1 - Pilar A **7**
**BHIAO-BHIB7**
■ **Infantil neskak** ■
Ikastola B **4** - Pilar **B 3**
**BHI A1** - Pilar A **2**

1LOIA, Kiroldegian

**Benjaminak**
Ikastola A 0- Ikastola C **2**
Ikastola B 0- Ikastola **D 2**
Mendaro A 0- Pilar C **2**
Mendaro B **2-** Herri Eskola A 0
Herri Eskola **B 2-** Pilar A 0
Herri Eskola C **2-** Pilar B 0

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

■ **Alebin mutilak** ■
Herri Eskola A **29** - Ikastola A **17**
Ikastola B **16** - Pilar B **21**
Mendaro A **41** - Pilar A **12**
■ **Alebin neskak**
Ikastola C **55** - Pilar B **3**
Herri Eskola A **42** - Pilar A 0

### AGENDA

**Azaroak 15, 4. Jardunaldia**

ESKUBALOIA, Kiroldegian

■ **Benjaminak** ■
**9:00** Pilar C- Herri Eskola **B**
**9:35** Herri Eskola **A-** Herri Eskola C
10:10 Pilar **A-** Ikastola **A**
**10:45** Pilar **B-** Ikastola **B**
**11:20** Mendaro **B-** Ikastola **D**
**11:55** Mendaro **A-** Ikastola C

FUTBOLA, Minlxetan

■ **Infantil mutilak** ■
**10:30** Ikastola **B- BHI B**
**11:15** Pilar **A - BHI A**
**12:00** Pilar **B-** Ikastola **A**
■ **Infantil neskak**
**10:30** Pilar **B- BHI A**
**11:15** Ikastola **A-** Ikastola **B**

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

■ **Alebin mutilak** ■
**10:30** Herri Eskola **A-** Pilar **A**
**11:15** Pilar **B-** Mendaro **A**
**12:00** Ikastola **A-** Ikastola **B**
■ **Alebin neskak**
**9:00** Pilar **B-** Herri Eskola **A**
**9:45** Ikastola **A-** Ikastola C

## Argentinako irakasleek Makinen Auton zazioao iuruz ikastaroa egin dute 111



Iosune Berasategik, Hezkuntza Berrikuntza eta Transferentziako zuzendariak, banatu zizkien Errosario herriko irakasleei diplomak eta ziurtagiriak agurraren ekitaldian. Argentinatarrek, egindako ikastaroa positiboki ebaluatu zuten eta Euskadin dagoen Lanbide Heziketaren goi-maila eta bertakoen lanerako filosofia eredutzat jo zituzten. IMHko arduradunek amerikarren jakingura eta zintzotasuna nabarmendu zituzten ekitaldian.

Ikastaro honekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Argentinarekin batera martxan jarritako lankidetza proiektuaren bigarren fasea bukatu da. Lehenengo fasean Hezkuntza Sailak herrialde honetako zenbait Lanbide Heziketa ikastetxetara ehun tornu inguru bidali zituen, eta oraingo ikastaro honekin, tornu hauen erabilpena ikasi dute.

## Herri Eskolakoak Mutrikun izan ziren Mendi Lehiaketaren Finalista Egunean



Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteko Mendi Taldeak aurrera darrai kurtso honetako mendi irteerekin eta joan zen urriaren 26an Mutrikun izan ziren, Eskolarteko XVI. Mendi Lehiaketaren Finalista Egunean. Eguraldi eskasa egin arren Herri Eskolatik 50 bat lagun joan ziren. Mutrikun Gipuzkoa guztiko jendearekin elkartzeko aukera izan zuten, eta esan digutenez, jende asko ezagutu zuten. Olatz aldera egin zuten ibilaldia, gero Kalbariora igo eta handik Mutrikura jaitsi ziren. Sarien zozketa eta joan zen urteko lehiaketako diplomen banaketa egin ostean, Elgoibarrera itzuli ziren berriro. Argazkian taldeko partaide batzuk ageri dira. Arnopeko frontoian indarrak berritzen. Hurrengo irteera, datorren azaroaren 23an egingo dute Elgetako Intxorta mendira.

# Karakatera igoera zapatu honetan, hilaren 15an, jokatuko da

## Jose Mari Fernandez "Suso"ren azken lasterketa izan daiteke

Zapatu honetan, hilaren 15an. jokatuko da Karakatera igoeraren 10. edizioa. Parte hartzaileak Plaza Handitik aterako dira goizeko 11:00etan. Partehartzaileei orduerdi lehenago agertzea gomendatzen zaie. Iaz partaidetza errekorra hautsi zuen probak, 20 izan baitziren Karakateko aldapa gogorrei aurre egiten ausartu zirenak. Antolatzaileek; Urgazi Triatloi taldeak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak, jendea proban parte hartzera animatu nahi dute, lasterketa herrikoiagoa izan dadila, alegia.



*Iazko partehartzaileak sari banaketa ostean.*

### "Suso"ren agurra

Jose Mari Fernandez "Suso" izan da jaun eta jabe orain arteko edizioetan. Errekorra bere esku izateaz gain (29'43"). 6 alditan izan da garaile Karakateko tontorrean. Iaz ere berak irabazi zuen 32'04" denborarekin eta proba amaitu bezain laster aurten izango zela parte hartuko zuen azken aldia adierazi zien han bildutakoei. Zapore onarekin, garaipenarekin ahal bada, agurtu nahiko du "Suso"k bere azken lasterketa izan daitekeena, baina ez du lan xamurra izango. Behobia-Donostia korritu ostean, sasoi betean iritsiko dira korrikalari gehienak eta asko izango dira "Suso"ren oinordeko bihurtzeko hautagaiak. Lasterketari dagokionez, hiru kategoria izango ditu; sailkapen nagusia, emakumezkoak eta edadetuak (50 urtetik gorakoak). Sariak maila bakoitzeko onenarentzat izango dira.

### Argazki Lehiaketa

Bestalde, urteroko argazki lehiaketarako epea zabaldu du Morkaikok. Urtero moduan, edozein formatutako argazkiak onartzen dira, hiru argazki gehienez partaide bakoitzeko, norbere izena eta argazkiaren atzean idatzita. Morkaikoren ordutegia: astelehen eta ostegunak 19:00etatik 20:30etara.

# Zorte txarrarekin hasi du denboraldia Lojantzi saskibaloi taldeak

Elgoibarko Lojantzi Saskibaloi Taldeak ez du batere denboraldi hasiera ona izan. Taldea atera edo ez zalantzan egon ostean, kanpotik etorritako jendearekin osatu dute taldea, baina ligako lehen lau partiduak galdu dituzte oraingoz. Lesioek ere izan dute zeresanik hasiera kaskar honetan, jokalari batzuk min hartuta izan baitira. Lesioez gain, lau jokalari izan ezik gainontzekoak berriak dira taldean eta oraindik elkarrekin jokatzera ohitu gabe daudela adierazi digute taldetik. Taldea osatzeko jendea falta zitzaienez inguruko herrietako jokalariak hasi dira aurten Lojantzin. Bergaran saskibaloi talderik atera ez denez, 3 jokalari etorri dira bertatik eta beste bat Eibartik. Hurrengo partidua etxean jokatuko dute Oñatiko Aloria-Mendiren aurka. Zapatu honetan 15:45ean Olaizaga kiroldegian.

**Tente, ezkerretik eskumara:** Iban Alonso, Mikel Larrañaga, Julen San Juan, Alberto Martinez eta Asier Murua. **Makurtuta, ezkerretik hasita:** David Urbina, Ramses Lahoz, Carlos Lahoz eta Jaime Martinez. **Argazkian falta dira:** Jesus Angel Tadeo eta Imanol Rodriguez.




## Spinning monitore titulua lortzeko ikastaroa Bgoibarren

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Spinning monitore titulua lortzeko ikastaroa antolatu du Elgoibarren. Ikastaroa azaroaren 22an, Mintxeta Gimnasioan, egingo da, goiz eta arratsaldez, 9:00etatik 13etara eta 15:00etatik 19:00etara. Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko Olaizaga kiroldegira deitu daiteke (943 74 44 15).

# 45 elgoibartar izan ziren partaidetza errekorra hautsi duen Behobia-Donostia lasterketan

## Sai 1 kapen a_

| Abizenak, Izena | Postua | Denbora |
|---|---|---|
| Ruiz Del Rey, Jose Antonio | 183 | 1:14:24 |
| Santamaria Fernandez, Luis | 298 | 1:16:45 |
| Arrieta Vallejo, Asier | 301 | 1:16:49 |
| Bergaretxe Olabide, Xabier | 325 | 1:17:11 |
| Gabilondo Altuna, Ibon | 537 | 1:19:43 |
| Agirretxe San Sebastian, J. M. | 1124 | 1:24:37 |
| Alonso Uribe, Raul | 1249 | 1:25:18 |
| Kapanaga Gabilondo, imanol | 1366 | 1:25:56 |
| Altzerreka Etxeberria, Roberto | 1401 | 1:26:09 |
| Asensio Perez, Juan | 2488 | 1:31:13 |
| Landaburu Azkarreta, Gorka | 2881 | 1:32:49 |
| Perez Alvarez, ignacio | 2497 | 1:31:16 |
| Cordon Sanchez, Roberto | 3375 | 1:34:51 |
| Cid Zabalo, Mikel | 3677 | 1:36:00 |
| Ansola Aizpitarte, Iñigo | 3912 | 1:36:58 |
| Oñederra Beristain, Javier | 4186 | 1:37:57 |
| Alberdi Estibaritz, Antton | 4275 | 1:38:18 |
| izagirre izagirre, Jose ignacio | 4276 | 1:38:19 |
| Gurrutxaga Perez, Andoni | 4282 | 1:38:19 |
| Cid Cid, Modesto | 4284 | 1:38:20 |
| Alkortortouki, Urtzivick | 4224 | 1:38:28 |
| Nuñez Gañan, Constan | 4521 | 1:39:08 |
| Gurrutxaga San Martin, J.Jose | 4723 | 1:39:46 |
| Agirrebeña Larrañaga, Xabier | 5090 | 1:41:08 |
| Arakistain iriondo, Aitor | 5188 | 1:41:33 |
| Guallar Perez, Jabi | 5202 | 1:41:35 |
| Zubiaurre Artola, Aitor | 5225 | 1:41:39 |
| Ramirez Gorria, Dioni | 5440 | 1:42:28 |
| Lendinez Garate. Ainhoa | 5626 | 1:43:18 |
| Ayesta Arruza, Carlos | 5959 | 1:44:40 |
| Lehr Arambarri, Maider | 6228 | 1:45:53 |
| Alonso Lopez, Christian | 6479 | 1:46:53 |
| David Casado, Maria Pilar | 6508 | 1:47:01 |
| Leon Artetxe, Juan Mari | 6678 | 1:47:41 |
| iriondo Garate, iñaxio | 6679 | 1:47:41 |
| Alonso Lopez, Eduardo | 6993 | 1:49:08 |
| Fernandez Picon, Alberto | 7451 | 1:51:10 |
| Arriola Diez, Pilar | 7796 | 1:53:05 |
| Santos Viñe, Eduardo | 7803 | 1:53:06 |
| Estibaritz Astarloa, izaskun | 8331 | 1:55:48 |
| Mir Oñederra, Gorka | 8358 | 1:55:58 |
| Lerchundi Larrañaga, Jesus | 8532 | 1:56:57 |
| Castrillejo Gabilondo, Erroka | 8833 | 1:58:41 |
| Galarza Berasueta, Martin | 8902 | 1:59:07 |
| Korta Juaristi, Edurne | 9667 | 2:05:32 |
| **MENDARO** | | |
| Agirrezabala Olasagasti, Jokin | 411 | 1:18:16 |
| Goikoetxea Aran berri, Aritz | 997 | 1:23:50 |
| Perez Cam pos, Victor Manuel | 1069 | 1:24:16 |
| Rey Arrillaga, Igor | 2962 | 1:33:08 |
| Ezenarro Arriola, Jordan | 5408 | 1:42:19 |
| Ezenarro Arriola, Igor | 5788 | 1:43:58 |
| Ezenarro Arriola, Aitzol | 5934 | 1:44:34 |



*Autobusez joan ziren elgoibartarrak lasterketa hasi aurretik.*

Partaidetza errekorra hautsi du aurten Behobia-Donostia lasterketa herrikoiak, 11.227 korrikalari ausartu baitziren Behobia eta Donostia artean dauden 20 kilometroak antxintxika egitera; 99an baino 227 partaide gehiago. Elgoibartarrek ere lagundu zuten marka ezartzen, 45 izan baitziren gure herritik joandako atletak. Iaz baino 2 gutxiago eta duela bi urte baino bat gehiago. 10.390 korrikalari iritsi ziren helmugara, 9.300 gizonezko eta 1.090 emakumezko. Helmugara ailegatu zen lehen elgoibartarra Jose Antonio Ruiz izan zen 1:14:24 denborarekin. Lehen emakume elgoibartarra, berriz, Ainhoa Lendinez izan zen 1:43:18 denborarekin. Guztira herriko 6 emakumek hartu zuten partc. Eguraldi eguzkitsua egin zuen lasterketa egunean, korrika egiteko berocgia akaso, baina bide bazterrak ere ikuslez eta animuz beteago izan ziren eguraldi onaren eraginez. Ezkerreko taulan C.D. Fortuna Elkarte antolatzaileak emandako elgoibartarren eta mendaroarren behin-behineko denborak eta postuak ikus ditzakezue.





*Ezkerrean Jose Antonio Ruiz, elgoibartarrik onena. Eskuinean Christian Alonso, Edu Alonso eta Alberto Fernande.*

# David Conde Gipuzkoako txapeldunorde Ehiza xeheko Txapelketan

## Euskadiko Txapelketan hartuko du parte azaroaren 23an

David Condek Gipuzkoako Ehiza Xehe Txapelketako bigarren postua lortu zuen pasa den azaroaren 9an Valdorban (Nafarroa) jokatu zen txapelketan. Ehiztari elgoibartarrak iaz lortutako txapela defendatzen zuen, baina Jon Etxebeste, Euskadiko cgungo txapeldunaren aurrean men egin behar izan zuen. Etxebeste oiartzuarrak 9 eper bota zituen eta Sigmakoak, berriz, 6 eper. Hirugarren sailkatuak 5 eper bota zituen. Zein txakurrekin parte hartu zalantzan izan ostean, "Dian" aukeratu zucla azkenik azaldu digu ehiztari trebeak: "Txakur zaharra eta geldoa izan arren, segurua da eta primeran moldatu ginen. Zortzi eper botatzeko aukera izan nuen, baina seirekin konformatu behar izan nuen. Dena dela, irabazleak 9 bota zituela jakin nuenean alferrik zela konturatu nintzen". Gipuzkoako ehiza xeheko 30 ehiztaririk onentsuenek hartu zuten parte txapelketan eta Ichen lau sailkatuek, Euskadiko Txapelketan hartuko dute parte, datorren azaroaren 23an, Zanbranan (Araba). Euskal Autonomi Erkidegoko 12 ehiztaririk onenak arituko dira nor baino nor. Probintzi



bakoitzeko 3 onenak, iazko irabazlea eta bi gonbidatu. David Conderen asmoa lehen hiru sailkatuetako bat izatea da, bere ametsa Espainiako Txapelketan parte hartzea baita. Sorian jokatzekoa da estatuko txapelketa eta bertan eper basatiak askatzen dituztela azaldu digu; "erronka handiagoa da ehiztariarentzat eta txakurrarentzat, hemen askatzen dituzten eperrak granjan hasiak baitira. llusio handia dut Espainiako Txapelketan egoteko eta gogor saiatuko naiz".

# Gaztetxoentzako Xake Txapelketa igande honetan hasiko da

Elgoibarko Xake Taldeak kirol hau bultzatu nahirik, 18 urtez azpikoentzako Xake Txapelketa antolatu du. Domeka honetan, azaroaren 16an, hasiko da Txapelketa Xake Elkarteak pista beltzean (San Roken) duen lokalcan eta igandero jokatuko da ligaxka egiturarekin. 12:30etan hasiko da txapelketa eta bertara agertzearekin nahikoa da parte hartu ahal izateko. Bestalde, nagusien xake liga urtarrilean hasiko da. Izena eman nahi duen edonork igandeetan lokaletik pasatzea besterik ez du cdo 943 74 09 61 telefonora deitu eta Mikelez galdetu.



## EMAITZAK

### Futbola

Elgoibar 1 – Pedrusko **2 (1. erreg.)**
Santo Tomas **2 – Haundi 1 (Pref.)**
Kostkas 1— Elgoibar **3 (Jub.)**
Elgoibar **9 –** Beasain **0 (Kadet.)**
Elgoibar **2 –** Aretxabaleta **2 (Inf.)**
Elgoibar 1— Mondragon **2 (Neskak)**
Elgoibar 0— Eibar **1 (Neskak F8)**

### Saskibaloia

Lojantzi E.S.T. **45 -Tximistarri 59**

### Esku pilota

**Gipuzkoako Txapelketa**
Añorga **22 –** Laguna A **20 (Kad.)**
Lagunak B 17 — Mundarro **22 (Kad.)**
Aretxabaleta **8 –** Lagunak **18 (Inf.)**
Anaitasuna **22 –** Lagunak **17 (Jub.)**
Zazpi Iturri **22 –** Lagunak **15 (Nag.)**

### Eskubaloia

Zarautz **25 –** Pagoaga Elg. 14 **(Kad. nesk.)**
Tecnomeca Elg. **20 - Gaztelueta 29 (Kad. mut.)**
Zarautz **15 -** Cometel Elg. **15 (Jub. nesk.)**
Pneumax Elg. 11 — Gaztelueta **15 (Jub. mut.)**
Groseko K.E. **29 –** Sanlo Elg. **27 (Senior mut.)**
Tecnifuelle Elg. **24 –** Ereintza 28 **(Sen. mut.)**

### Areto Futbola

Kenci Elg. 7 — Ceramic. Nogales 4 **(Nazional B)**
Internacional 5- Lanbroa **2 (2. maila)**
Gaztelupe **3 -** Magefesa **6 (Jub.)**
Aralar 10 — Lojantzi **5 (Jub.)**

## AGENDA

### Areto Futbola, Kiroldegian

**Zapatua, 15**
**12:30** Lojantzi – Zarauz **(Jub.)**
**Domekia, 16**
**11:00** Lanbroa — Ostatu
**12:30** Magefesa — Goierri **(Jub.)**

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 15**
**16:30** Haundi — Bergara **(Pref.)**
**18:15** Pedrusko – Zarautz **(1. erreg.)**
**Domekia, 16**
**12:00** Elgoibar – Hondarribia **(Juh.)**

### Saskibaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 15**
**15:45** Lojantzi – Aloña Mendi

### Esku pilota

**Barixakua, 14**
**21:15** Lagunak — Añorga **(Jub.)**
**22:00** Lagunak A — Behar Zana **(Nag.)**
**22:45** Lagunak B — Zumaiako **(Nag.)**

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Domekia, 16**
**11:00** Sanlo Elg. —Arrasate C **(Sen. mut.)**

# merkatu txikia



## fr> Langai

Euskal Lan Zerb zua

Debagariko enpresak **optikoa** behar du. **Erref. 109587/2**

Debabarreneko enpresak **pasteletoa** behar du. **Erref. 109627/2**

Durangoaldeko enpresak **elektrizista** behar du. **Erref. 110756/3**

Debagoienako enpresak **elektronikoa** behar du. **Erref. 111958/2**

Durangoaldeko enpresak "conta **plus" irakaslea** behar du. **Erref. 111869/1**

Durangoaldeko enpresak **soldadorea** behar du. **Erref. 112266/2**

lurretako enpresak **garbiketarako langilea** behar du. **Erref. 112392/1**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Alberto Iturricastillo) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Rarn6n)943 74 41 32 telefonora.

## Lana

### ESKAERA

• Neska gaztea umeak zaindu edo dependienta lanak egiteko prest. a **696 436 667**

• Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. s **943 74 30 56**

• Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. a **943 75 24 31/600 89 06 41**

+ Emakumea egun erdiz garbiketa lanak egiteko prest. a **639 88 20 04**

• Neska gaztea edozein lan egiteko prest. Umeak zaindu, eskolara eraman, garbiketa lanak... a **680 68 20 82**

• Neska gaztea edozein lan egiteko prest. Esperientzia umeak zaintzen. rt **665 20 18 24**

### ESKAINTZA

• Astean zehar, gauez tabernan lan egiteko pertsona behar da. Euskalduna eta esperientziaduna. a **687 05 17 89**

• Kamareroa behar da. a **943 74 42 65**

## Etxebizitzak

• Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta despentsa. Eguzkitsua. 0 **636 22 31 42**

• Pisua salgai Ubitarte Plazan. Dena kanpora begira, eguzkitsua, 62m². Bikote batentzako aproposa. Dena berritua. a **696 74 91 59**

• Etxea salgai herri erdian. 3 logela, amueblatua, berritua, bizitzera sartzeko moduan. **661 42 60 77**

• Etxea salgai Jausoro Plazan, Santa Klarako komentura begira. Zazpi urte, 65m². Egongela, 2 logela, komuna eta sukaldea. a **655 74 86 59**

• Etxebizitza salgai San Antolinen. 5⁹ ezk. -a **943 74 22 05**

• Pisua alokatzen da Deban ekainera arte. a **943 74 13 39**

• Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. Sukaldea, 3 logela, komuna eta bi ganbara. **ze 665 70 30 24**

• Pisua hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. a **943 74 37 74 (Paki)**

• Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua, berogailua, bi balkoi eta ganbara. a **661 23 77 11**

• Etxebizitza salgai San roke auzoan, Arregitorren. 90 m', 3 logela, sukaldea, saloia, bi komun eta bi balkoi. Trasteroa ganbaran. Guztiz berritua eta kalitatezko muebleekin (aukeran). a **616 78 51 20 (arratsaldez deitu)**

• Etxea salgai. Arregitorren egiten ari diren ebeetako bat. 70m', dena kanpora begira. a. **646 38 56 56**

## Garajeak

• Pista Beltzean bi garaje salgai. Bata itxia. Bestea irekia, bi kotxe sartzeko modukoa. Merke, aukera bikaina. zr **943 74 20 34/639 35 33 31**

• Garajea hartuko nuke alokairuan Leku Ederren edo inguruan. Itxia merke, edo marrekin banatutakoa. a **696 89 60 88**

• Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan. Tr **943 74 20 09**

• Garajea alokatzen dut. a **943 74 18 81**

## Bestelakoak

• Azaroaren 9an, larunbatean kremaileradun jertse betlza trukatu zen Lanbroa tabeman. Norbaitek deskuidatuta berea ez zen jertsea hartu zuen. a **943 74 16 10**

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

• Caritasek butano-berogailua eta jangelarako mahaia behar ditu. a **943 74 15 09**

• Wolkswagen Caddy, 1900 TDI autoa salgai. 130.000 km. s **670 23 52 54**

• Setter ingeles arrazako txakurra salgai. Oso modu onean. **943 03 35 03**

• 90eko bi ohe berri salgai. Berri berriak, armairu eta mesillekin. a **943 74 24 57 (eguerdian edo iluntzean deitu)**

• Renault 19 1.4cc. salgai. Egoera oso onean. Itxiera zentralizatua eta leiho igogailu zentralizatuak. Ekonomikoa. a **646 16 04 80 (15:00etatik aurrera)**

• Peugeot 205 gasolinazkoa salgai. Egoera oso onean. **zr 943 74 32 94**

• Ezkon soinekoa salgai konplemento guztiekin. Marfil kolorekoa. Udazken-negurako egokia. Egoera onean. a **646 37 59 14**

• Opel Vectra DTI. 2.2 saport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko garantia. **Tr 616 26 62 12**

• Egongelako altzariak salgai. Mahaia, 6 aulki, 2 aparadore baju. Marko doratuko ispilua opari. a **649 25 90 51**

• Funtzionamendu oneko denda saldu edo traspasatzen da. s **665 70 22 28**

## Lokalak

• 200m²ko lokala salgai San Lorentzon. Lur sailarekin. a **686 26 27 27**

♦ Lokala alokatuko genuke Elgoibarren. **636 91 07 06**

## Partikularrak

11. DBHko eta LHko klase partikularrak ematen dira. **616 26 20 13**

• DBH 3. mailako klase partikularrak emateko pertsona behar da. **678 03 50 60**

# Agurrak

• Zorionak **Ion Rodriguez Sanchez,** hilaren 11n, 14 urte bete zenituelako. Gurasoen eta bereziki, arreba Eiderren partez.



• Zorionak Ane Kortaberriari, bihar 2 urte beteko dituelako. Muxu haundi bat Nora, guraso eta familiakoen partez.



• Zorionak Iñigori, azaroaren 11n, 5 urte bete zituelako. Familiakoen, eta bereziki Maialenen partez, muxu handi bat.



*Zorionak **Estefani Perez,** azaroaren 12an, 11 urte bete zenituelako. Gurasoen eta anaiarreben partez.



• Zorionak Ane Sotari, azaroaren 15ean, 3 urte beteko dituelako. Gurasoen, aiton-amonen eta lehengusu Gorkaren partez.



• Aupa **Aritz,** etxeko potxoloa! Gaur bi urte bete dituzu. Jarraitu horrela. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Nagore eta Julenen partez.



• Aupa Azkenik 5 urte bete dituzu. Besarkada eta muxu handi bat, anaia Andoni, lehengusu, guraso, aitxitxa, eta izeben partez.



• Zorionak Zorione, atzo bi urte bete zenituelako. Baita tio Bi Horri ere. Familiakoen, eta bereziki, Aitor, Maier, Ainhoa eta Julenen partez.



*Zorionak Ander Gabilondori, hilaren 13an, 11 urte bete zituelako. Aita, osaba-izeba, lehengusu eta batez ere, Azpeitiko amonaren partez.



♦ **Borja** zorionak bihotzez, zure 1. urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Dorleta, Iker, Eider, Aitor eta Aiararen partez. Muxu bat, eta ondo pasa hilaren 19an.



• Zorionak Haritz Cerezori, hilaren 12an, 8 urte bete zituelako. Familiakoen, eta bereziki, Enekoren partez.



• Zorionak **Andoni,** hilaren 13an, 6 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Urtziren partez. Aupa txapeldun!



• Zorionak **Maialen,** hilaren 17an, 9 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, zure ahizpa Maitaneren partez.



• Kaixo **rubia!** Ikusten duzun bezala ez gara zutaz ahaztu. Zorionak!



• Zorionak bikote! Azkenik iritsi da zuen ezkontza eguna. Lagun guztien partez, egun zoragarria pasa!

gazte
nbmg informazioa

***Elgoibarko Gazte Informazio Gunea***
*Kultur Etzean. Bigarren solairuan.*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Astearte-ostiral: 16:00-20:00*

## BEKAK

Giza eskubideak

Arartekoak giza eskubideen arloan ikertu, prestatu eta ikasketak egiteko beka bat antolatu du. Baldintzak: 1998ko urtarrilaz geroztik lizentziatu-titulua lortu izana eta EAEko herritarra izatea. Bekaren zenbatekoa 11.250 eurokoa izango da eta 10 hilabeteko iraupena izango du. Epea: azaroak 21

**Ikertzaileen prestakuntza**

Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioak ikertzaileak prestatzeko doktorego aurreko bekak prestatu ditu, finantziatutako ikerketa-proiektu zehatzei loturiko doktorego-tesi bat egin nahi duten unibertsitateko goi-mailako tituludunentzako. Beken iraupena 48 hilabetekoa izango da eta zenbatekoa 1.005 euro gordin hilean. Epea: azaroak 24

## LEHIAKETAK

**Enpresa-proiektuak**

Donostiako Udalak enpresa-proiektuen lehen "e-business" lehiaketa antolatu du, bakarka nahiz taldean Autoenpleguko edo Mikroenpresa baten sorrerarako proiektu bat duten ekintzaile guztiei irekia. Proiektuak e-business/negozio elektronikoa izan behar du. 9.000 euro saritan. Epea: azaroak 20

**Salaketa-argazkiak**

Errioxako "Ecologistas en acci6n!" taldeak salaketa-irudiei eskainitako argazki lehiaketa antolatu du. Egile bakoitzak gehienez ere zuri-beltz edo koloretako lau lan aurkez ditzake. 1.300 euro saritan. Epea: azaroak 21

**Eskultura**

Sabiñanigoko Udalak Eskulturako X. Nazioarteko Saria antolatu du. Lehiaketara eskulturak edo maketak aurkez daitezke. Egile bakoitzak gai eta teknika libreko lan bakarra aurkeztuko du. 6.000 euroko sari nagusia. Epea: azaroak 21

## JARDUERAK

**Herri krosa**

BBKren cskutik hamaseigarren Herri krosa izango da Bilbon, azaroaren 16an. Lasterketa 11:00etan hasiko da On Diego Lopez de Haro Kale Nagusiaren 30. zenbakitik eta Bilboko kalen nagusietatik pasako da 10 km-ko ibilbidea osatuz. Izena ematerakoan kamiseta/dortsal bat emango zaio parte-hartzaile bakoitzari.

**Topaketa Getxon**

Bolunta eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatuta, Europako "Gazteria" Programari buruzko topaketa izango da Plentziako aterpetxean azaroaren 28 eta 29an. Bertan programaren egoera ezagutarazi eta ebaluatuko da eta berau hobetzeko proposamenak bilduko dira. Izena emateko epea: azaroak 21

## LANA

**Gizarte langilea**

Irungo Udalak lehen mailako arretako gizarte-langile bat oposizio lehiaketa bitartez kontratatzeko deialdia egin du. Baldintzak: Gizarte-laneko diplomatu-titulua eta 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: azaroak 27

**Zerbitzu-laguntzaileak**

Salamancako Unibertsitateak zerbitzu-laguntzaileen 61 lanpostu betetzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Baldintza: Eskolatze Ziurtagiria izatea. Epea: azaroak 20

# agenda

2003-XI- 14

## 14 BARIXAKUA

19:00 **"BEHIAK, TXAKURRAK ETA DEABRUAK" ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Egilea: Esperanza Zabala margolaria
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Azaroaren 30a arte

## 15 ZAPATUA

11:00 **KARAKATERA IGOERA**
Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkartea



## 16 DOMEKIA

16:00 **MAGOSTO EGUNA**
Gaztainak banatuko dira Galiza Kultur Elkartean
Antolatzailea: Galiza Kultur Elkartea

## 18 MARTITZENA

20:00 **HITZALDIA**
Gaia: Merkataritza solidarioa
Parrokiako saloian (sarrera trenbide kaletik)



## 19 EGUAZTENA

20:00 **HITZALDIA**
Gaia: Merkataritza solidarioa
Parrokiako saloian (sarrera trenbide kaletik)

## 20 EGUENA

19:30 **EINBIOU PLATAFORMAREN BATZARRA**
Kultur Etxean

## 21 BARIXAKUA

19:30 **SANTA ZEZILIA KONTZERTUA**
Musika Eskolako Auditorioan
22:00 **ZINE FORU,-A**
Filma: "Amores en tiempos de guerra"
Dinamizatzailea: Eskame Larrinaga
Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## IKASTAROAK

**Barreterapia**

Barreterapia ikastaroak aurrera jarraitzen du eta azaroaren l6an, domeka honetan, izango da hurrengo saioa Aubixa baserrian. Barre egiteak gorputzarentzat dituen onurak aztertu eta frogatzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Abenduaren 14an ere izango da ikastaro honetan parte hartzeko aukerarik. Izena eman edo informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 17 15 telefonora deitu,

**Laburmetraia ikastaroa**

Elgoibarko GAZ-T Aisialdi Taldeak DBH letik DBH 4ra arteko gazteentzako "Laburmetraia egiten" izeneko ikastaroa antolatu du. Sebastopoleko titiriteroek emango dute ikastaroa, eta orokorrean laburmetraia bat egiteko prozesu osoa azalduko dute modu teoriko-praktikoan. Ikastaroa bi larunbatetan gauzatuko da, azaroaren 22an eta 29an, goizeko 10:00etatik 14:00etara Kultur Etxean. Ikastaroak 20 euroko prezioa izango du. Interesatuek Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean (943 74 16 26) eman dezakete izena. Izena emateko azken eguna azaroaren 19a, asteazkena, izango da.

## ZINE kluba



### "Together"

**Zuzendaria: Chen Kaige.**
**Antzezleak: Liu Peiqi, Chen Hong, Wang Zhiwen.**

Instrumentua eusteko gai zenetik jotzen du biolina Xiaochunek. Aitak bakarrik hezi duen 13 urteko mutiko lotsati eta sentibera da, baina jadanik hainbat sari irabazi ditu biolina joz. Aita sukaldaria da, gizon langile eta izaera alaikoa, baina argi dauka semeak musika munduan etorkizuna izan nahi badu Pekinera joan beharko dutela goiz edo berandu. Aurreztuta zeukaten diru apurra bildu eta gogotsu ekingo diote hiriburu itzelerako bidaiari. Bizitza ez da erraza, ordea, eta gogor lan egin beharko dute biek ere.

## HITZALDIAK

**Merkataritza solidarioa**

San Bartolome Parrokiako Misio Taldeak merkataritzari buruzko hitzaldiak antolatu ditu. Behin baino gehiagotan entzun izan dugu zerbait merkataritza solidarioari buruz, eta baita parte hartu ere Elgoibarren azken urteetan gure herrian zabaltzen den solidaritate dendaren bitartez. Errealitate hau hobeto ezagutu ahal izateko, parrokiako Misio Taldeak, Elizbarrutiko taldearen laguntzaz, bi hitzaldi eskainiko ditu. Azaroaren 18an eta 19an (martitzena eta eguaztena) izango dira hitzaldiak 20:00etan parrokiako saloian (sarrera trenbide kaletik).

## LEHIAKETAK

**Argazki lehiaketa**

Topaguneak (Euskara Elkarteen Federazioa) Gabon zoriontsuak eta urte berri ona ospatzea gaitzat duen argazki lehiaketa antolatu du. 14 eta 99 urte bitarteko profesional nahiz zaleei zuzendutako lehiaketa da eta azaroaren 22ra arte jasoko dira argazkiak. Lehiaketaren oinarriak: Topagunean (Tel: 946215116/ E-maila: gazteak@topagunea.com/ ) edo Elgoibarko Izarran: Tel: 943 741626) E-maila: atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com . Saria argazkirako materialean gastatzeko 300 euro izango dira.

**Mendi irteera proposamenak**

Morkaiko Mendizale Elkarteak hurrengo urterako irteeren egutegia prestatzen dihardu. Hau dela eta, irteerarik onena aukeratzeko lehiaketa antzekoa egingo dute bazkideen artean. Bazkideek irteerak proposatzeko aukera izango dute eta aukeratutako proposamenen egileak dohainik joango dira irteera horretara. Honez gain, irteeren inguruko edozein proposamen onartu eta eztabaidatuko dela azaldu digute Morkaikotik. Proposamenak Morkaikok Errosario kalean duen egoitzara eraman daitezke edota e-postaz bidali:morkaiko@hotmail.com

## KONTZERTUAK

**Ikasle Eguna Alegian**

Ikasle Abertzaleak erakundeak antolatuta, Ikasle Egunaren 15. urteurrena ospatuko da zapatu honetan, azaroak 15, Alegian. Ikasleen Nazioarteko Eguna da azaroaren 17an eta Euskal Eskola Nazionalaren aldeko deialdia egin nahi du Ikasle Abertzaleak erakundeak. Gaueko 21:00etatik aurrera jatorri ezberdineko hainbat talde ezagunek makrokontzertua eskainiko dute. "Hamlet" eta "Habeas Corpus" talde madrildarrak, "Banda Basotti" italiarrak, "O' Funkillo" andaluziarrak eta bertako "Su ta Gar" eta "Berri Txarrak" taldeen kontzertuak izango dira. Sarrerak Elgoibarko Txuri-Beltz tabernan edo Eibarko Hilbeheran eskura daitezke. Aurrez erosiz gero 12 euro balio ditu, 15 euro bertan erosiz gero.

## ZOZKETAK

**Furgonetaren zozketa**

Presoen Aldeko Elkartasun Zozketako zenbaki saritua 027.955 izan da. Ordezko zenbaki saritua, berriz, 022.358. Saria furgoneta bat zen.

# zine

ARTELDEGIA

iik

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**"American Pie iMenuda boda!''**

14, barixakua: 22:15
15, zapatua: 19:30-22:15
16, domekia: 16:30-19:30-22:15
17, astelehena: 22:15

**"Simbad, La Leyenda de los 7 mares""**

16, domekia: 16:30

**wfogether" (Z.K.)**

20, cguena: 22.15

**"Diablo'"**

21, barixakua: 22.15

**nzag**

**"Mat** evi ins"

14. barixakua: 19:30-22:15
15, zapatua: 17:00-19:30-7"":30
16. domekia: 17:00-19:30-22:30
17. astelehena: 19:30-7$^{7}$:15
18, martitzena: 19:30-97:15
19. eguaztena: 19:30-$^{72}$:15

**BAR,**

"Holl rtamento de homicidios"

14, barixakua: 19:30-22:15
15. zapatua: 17:00-19:30-22:15
16, domekia: 17:00-19:30-22:15
17, astelehena: 19:30-22:15
18, martitzena: 19:30
19. eguaztena: 19:30

BARRENek ez du gena litezkeen emanaklien aldaketen erantzt i



## "American Pie dillenuda Boda!""

N

**Zuzendaria: Jesse Dylan.**
**Antzezleak: Jason Biggs, Alison Hannigan, Seann William Scott.**

East Great Falls High institutuko ikasle amerikarrak azken aldiz ikusi genituenetik zenbait urte pasa dira. Eskolako garaiak atzean laga eta lagun koadrilako kide batzuk ezkontzeko zorian daude, Jim eta Michelle kasu. Jimen lagunak ezkontzaren aurka daude, nahiago baitute daramaten ezkongabe bizimoduarekin jarraitu, mozkorraldiekin eta emakume artean, alegia. Dena dela, ezkondu aurreko agur-afaria egiteko prest daude eta Stiflerrek izango du lagun guztiak bildu eta jaia antolatzeko ardura.

# erretratu zaharra

2003-XI- I 4



Aste honetako erretratu zaharra San Lorentzo Bailarako bizilagun batek laga digu. Argazkia San Lorentzo auzoko jaietan ateratakoa da, 1926. urte inguruan. Ikusten denez, Dantza Solteko lehiaketak arrakasta handia zeukan garai hartan. Gazte ugari daude lehiaketari begira, beraien txanda noiz tokatuko zain.

Argazkian agertzen direnen izenak ezagutzea ezinezkoa izan zaigu, baina trikitilariak oso ezagunak dira gure herrian. Gogora ditzagun zein diren trikitilari hauek: Soinujolea Manuel Sodupe "Gelatxo" (I), panderojolea Francisca Zubizarreta (t), eta aterkiarekin bi hauek tapatzen dagoena, bere senarra da, Gregorio Alberdi "Markoni" (t).



*ESKERTZA*

*2003ko azaroaren 8an, 87 urte zituela hil zen*
*JESUSA BARRENETXEA OSOROren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*ESKERTZA*

*2003ko azaroaren 4an, 82 urte zituela hil zen*
*JESUS ARCE MARAÑONen sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Jtifete4

# clerbe
## LIBURUDENDA

Zezenbide 9
Tel./Faxa: 943 20 22 30
20600 EIBAR
(Gipuzkoa)




OUT LESS GYS SPORT CASA ASTIGARRAGA




Inotiak 30 €-tik aurrera

Zapatilak 20 €-tik aurrera

Sudaderak -tik aurrera

Galtzak -tik aurrera

//ineen tHandalak 30 €-tik aurrera

KIROL MODA PREZIO ONEAN

Jausoro Plaza (Astigarraga Loradenda zegoen lekuan)

# GREIVIOEN G1DA

## AROZTEGIA:K

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
943 74 31 16

**ETXEKIT**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
u 943 74 43 47

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
u 943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
u 943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
u 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
17- 943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
Tr 943 74 03 96

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZSGA"IETA KLIMATIZZZI6A

**ANGEL**
Santa Ana, 5
u 943 74 17 61
rr 689 04 92 06

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
943 74 28 80

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
u 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
17 943 75 50 62
u 607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
Ir 943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
u 943 74 07 89
u 608 14 30 40

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
u 943 74 15 52
u 606 43 11 19-20

**IPI NTZA**
Foruen enparantza, 4
u 943 74 04 40
Ir 607 74 04 40

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
u 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
u 943 74 12 38

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
u 943 74 09 02
u 659 93 49 64

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
u 943 74 13 76

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
u 943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
11 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
u 943 74 29 87
u 679 19 77 47

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabiloia
11 943 74 30 94